

## **2026. urteko dirulaguntza-deialdia**

**Eremua: INGURUMENA**

**Dirulaguntza lerroa: AUZOKO BIHOTZ BERDEEN  
INGURUMEN- ETA GIZARTE-HOBEKUNTZA,  
ESKOLAKO 2030 AGENDAREN BIDEZ**

## **1. artikulua.- Eremua eta xedea**

**Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, ingurumenaren eremuan, dirulaguntza-lerro honetarako deia egiten du: "Auzoko bihotz berdeen ingurumen- eta gizarte-hobekuntza, Eskolako 2030 Agendaren bidez".**

**Helburua** da Bilboko Eskolako 2030 Agenda osatzen duten ikastetxeen, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta Lehen Hezkuntza bakarrik ematen duten Bilboko ikastetxeen jarduerak sustatzea, kokatuta dauden ingurunearen ingurumen- eta gizarte-hobekuntza lortzeko, kolektibo, elkarte eta familiekin lankidetzan arituz. Era berean, ingurumenarekiko kontzientziazioa eta ikasleak auzoko bizitzan inplikatzeko sustatu nahi da, era horretan lagunduko baita Bilboko Dirulaguntzen Plan Estrategikoko 9. helburu estrategikoa lortzen: "Bilboko garapen jasangarriaren oinarri gisa ingurumen-jasangarritasunaren eta mugikortasun jasangarriaren aldeko hautua egitea", eta nola eragiten dion horrek plana betetzeari..

Jarduera horiek **gauzatzeko epea 2026ko irailaren 1etik 2027ko uztailaren 30era** bitartekoa izango da.

## **2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia**

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauek bete beharko ditu:

- Bilboko Udalaren eta bere erakundeen eta zuzenbide publikoko entitateen deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarrien Ordenantza Orokorra (BAO, 2016ko uztailaren 20koa).
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege hori garatzen duen erregelamenduzko araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Era berean, lege eta dekretu hauetan dirulaguntzei buruz xedatutakoa aplikatuko da:

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa; zehazki, II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzkoa.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarriak.
-

### **3. artikulua.- Entitate onuradunak**

**3.1.** Bilboko Eskolako 2030 Agendan parte hartzen duten ikastetxeak, lanbide-heziketako ikastetxeak eta Bilbon Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan bakarrik diharduten ikastetxeak edo, halakorik ezean, ikastetxe horietako guraso-elkarteak.

**3.2.** Entitate eskatzaileek Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzako Erakundearen Erregistroan (Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailean kokatuta dago, Campo Volantín pasealekuko 1 bis atariko 5. solairuan) izena emanda egon behar dute eta datuak eguneratuta eduki behar dituzte.

**3.3.** Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte entitate eskatzaileek eskaera aurkezten den unean, dirulaguntza ematean, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.

### **4. artikulua.- Aurrekontu-kredituak**

**4.1.** Deitzen diren dirulaguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorraren aurrekontu-kodearen (**PEP 2026/00103**) eta **2026ko** ekitaldirako onartutako 2026 21020 00103 00 2026 gastu proiektuaren kargura finantzatzen dira.

Deialdi honetara bideratutako zenbatekoa **30.000 euro** da.

**4.2.** Deialdiaren onarpen-egunetik dirulaguntza eman arteko epean ekonomiaren egoerak okerrera egiten badu, zenbateko hori gutxitu ahal izango da defizitean ez erortzeko, betebeharrak hori ezarri baitzitzaieen administrazio publikoei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan, eta ondorioz behar diren egokitzapenak egin beharko dira aurrekontuan.

### **5. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedura**

**5.1.** Diruz lagundu daitekeen kontzeptuari **aplikatu beharreko araubidea norgehiagoka izango da.**

- Norgehiagoka-araubidean dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskaerak erkatzen dira lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 9. artikuluan adierazitako balioespen-irizpideak erabiliz, eta balioespenik altuena lortzen dutenei esleitzen zaie dirulaguntza, deialdian ezarritako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa inola ere gainditu gabe.

**5.4.** Lehia-konkurrentziaren araubidean, behin "60" puntutan ezarri den gutxieneko atalaserira iritsiz gero, eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa programa bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera portzentaje bat aplikatuz egokituko da, taula honi jarraiturik:

<b>Programari emandako puntuak</b>	<b>Emango zaion dirulaguntzaren ehunekoa</b>
80 puntu baino gehiago	Eskatutakoaren % 100.
70 eta 80 puntu bitartean	Eskatutakoaren % 80.
70 puntu baino gutxiago	Eskatutakoaren % 70.

## **6. artikulua.- (Epigrafeak eta/edo) Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak**

**Bilboko Eskolako 2030 Agendan parte hartzen duten ikastetxeen, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta Bilboko Lehen Hezkuntza bakarrik ematen duten ikastetxeen, edo, halakorik ezean, ikastetxe horietako guraso-elkartearen jarduerak, beren ingurunearen ingurumen- eta gizarte-hobekuntza lortzeko eginak ikastetxeetako ikasleen inplikazioarekin. Eskolako jolastokietan biodibertsitatea hobetzeko jardueretarako ere eman ahal izango dira dirulaguntzak; esaterako, flora autoktonoko lorategi txikiak sortzeko, eskola-baratzea sortzeko, habiakutxak jartzeko, etab.**

**Jarduera horiek guztiak ikastetxeetako guraso-elkartekin, bestelako elkarteekin, kolektiboekin edo inguruko boluntarioekin egin ahal izango dira.**

**Gastu mota: arrunta**

**Gauzatzeko epea: 2026ko irailaren 1etik 2027ko uztailaren 30era arte.**

**Bazter utzitakoak:** Eskolako 2030 Agendan parte hartzen ez duten eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza bakarrik ematen ez dituzten Bilboko ikastetxeak edo Lanbide Heziketako ikastetxeak.

Ez da dirulaguntzarik emango udal-deialdi honen esparruan Bilboko Udaleko beste sail batzuek deitutako dirulaguntza-lerroen xede diren programetarako.

Era berean, ez da dirulaguntzarik emango inbertsioztat hartzen den gastu motarako.

Otordu-zerbitzuen gastuek (catering) eta ordezkaritza gastuek diruz lagundutako programarekin lotura zuzena badute, justifikazioan ez da onartuko gastu horiek programaren aurrekontua % 5 baino gehiago gainditzea.

Udalak beretzat gordeko du dirulaguntza-lerro honen bidez jartzen diren elementuak (jardinerak, horma-irudiak eta abar) kentzeko ahalmena, baldin eta denboraren ondorioz hondatzen badira edo arriskua sortzen badute.

**Gehienez ere eman daitekeen dirulaguntza: 5.000 euro**

**Puntuen gutxieneko atalasea: 60**

**Gehienez aurkez daitezkeen programen kopurua: 1**

## **7. artikulua.- Eskaerak**

### **7.1. Eskaerak aurkezteko epea.**

Eskaerak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko otsailaren 20an amaituko da.

### **7.2. Informazioa eta dokumentazioa.**

Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia leku hauetan egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren webgunean ([www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)).
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian ([www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio)).
- Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean ([www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es)).
- Bilboko Udalaren herritarrentzako arreta-bulegoan eta barrutietako udal-bulegoetan, ohiko ordutegietan.

### **7.3. Izapidetzea.**

Eskaerak Udalaren webgunearen bidez edo udal erregistroan egin ahal izango dira.

- Eskaera **Udalaren webgunearen** bidez izapidetuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso eta datu guztiak eman beharko dira.
- Eskaerak **udal-erregistroan** aurkeztuz gero, eskaera-orri bat bete beharko da eremu eta dirulaguntza-lerro bakoitzeko, Bilboko Udalak emandako ereduak erabiliz.

Eskaera-orri horretan, erakunde eskatzaileak zehaztuko du zer programa aurkezten dituen dirulaguntza-lerro horretara, lerro horretan diruz laguntzeko modukotzat zehazten diren kontzeptuen arabera.

Eskaera-orria herritarrentzako arreta-bulegoan edo barrutietako udal-bulegoetan aurkeztu ahal izango da, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren legezko beste leku batzuetan ere.

**7.4.** Eskaera entitatearen legezko ordezkariak edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du, eta bertan adieraziko du emandako datu guztiak egiazkoak direla eta entitate eskatzaileak ez duela debekurik onuraduna izateko, ez Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan arabera, ezta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan ezarritakoaren arabera ere.

**7.5.** Dirulaguntza-eskaerak ezin izango dute ezein kasutan ere programa bati emateko finkatutako gehieneko zenbatekoa baino handiagoa izan. Gehieneko zenbateko hori diruz lagundu daitekeen kontzeptu bakoitzerako ezartzen da.

**7.6.** Era berean, eskaera guztietan kontuan izan behar da dirulaguntzen bidez nahiz beste iturri batzuetatik eskuratzen den finantzaketa osoak ezin izango duela gainditu aurkeztu den programaren kostua.

**7.7.** Bilboko Udalak egoki irizitako argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie entitate eskatzaileei, aurkeztutako eskaera hobeto baloratzeko.

**7.8.** Programa bakoitza Udalaren dirulaguntza-lerro bakar baterako aurkeztu beharko da.

**7.9.** Dirulaguntza lerro honetan entitate bakoitzak gehienez programa bat aurkeztu ahal izango du.

## **8. artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

**8.1.** Eskaera **Udalaren webgunearen** bidez izapidetzen bada, dokumentu bi erantsi beharko dira PDF formatuan:

- Eskaerarekin batera programaren edukia azaltzen duen dokumentua. Haren barruan, aurkezten den gastu-aurrekontuaren azalpen zehatza jaso beharko da
- Entitateak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu entitatea duela gutxi sortu bada).

**8.2.** Eskaera **udal erregistroan** aurkezten bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Eskaera-orria, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera egina eta urteka banakatua.
  - Eskaerarekin batera programaren edukia azaltzen duen dokumentua. Haren barruan, aurkezten den gastu-aurrekontuaren azalpen zehatza jaso beharko da.
  - Entitateak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu entitatea duela gutxi sortu bada).

**8.3.** Eskaera sinatzean, eskatzaileak baimena ematen dio Bilboko Udalari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko. Dena dela, baimena ukatu ahal izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko

betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanak.

**8.4.** Bilboko Udalaren dirulaguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden entitateek hartzekodunen fitxa" aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta (fitxa hori eman egingo zaie).

**8.5.** Elkarreak ez diren entitateek 3.1 artikuluan ezarritako betekizunak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Estatutuak.
- Dagokion erregistroko inskripzioa, entitatearen eraketa egiaztatzen duena.
- **8.6.** Eskaerak deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, behar bezala formalizatuta ez badago edo daturen bat edo aipatutako dokumenturen bat falta bada, entitate eskatzaileari eskatuko zaio akatsak zuzendu ditzala 10 egun balioduneko epe luzaezinean, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena administrazio-prozedura erkidearen legean aurreikusitako moduan eman ondoren.

## **9. artikulua.- Balorazio irizpideak**

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauen arabera baloratuko dira:

### **A) Programa baloratzeko irizpideak .....GUZTIRA 85 puntu**

a) Programaren interesa: ..... 48 puntu, gehienez  
Irizpide horren barruan alderdi hauek baloratuko dira:

Egingo diren jarduerak. Sailaren ildo estrategikoekin, helburuekin eta irizpideekin bat etortzea. Parte-hartzaileen kopurua; aurreikusitako eragina; berrikuntza/teknologia berrien erabilera. Programaren iraupena. Programa zenbateraino dagoen finkatuta (aurretik ere garatutako programa den edo ez). Lankidetzaren beste ente batzuekin. Sareko lana (Bilboko Eskolako 2030 Agendan parte hartzea) jarduera egiten den lekua. Ekintzaren justifikazioa (programa egiteko arazoak). Beharrezkoak testuinguruan kokatzea eta aztertzea.

b) Programaren diseinuaren kalitatea:..... 10 puntu, gehienez.  
Irizpide horren barruan alderdi hauek baloratuko dira:

Jarduerak egokiak ote diren helburuak lortzeko. Helburuak, ekintzak, kronograma eta metodologia sartuta dauden edo ez. Barne-komunikazioa: Kanpo-komunikazioa. Ebaluazio-sistema Proiektuaren koherentzia.

c) Aurrekontua egokitzea: ..... 10 puntu, gehienez.  
Irizpide horren barruan alderdi hauek baloratuko dira:

Programaren interesaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko erlazioa. Finantzen arloko ahalegina (beste finantzaketa-iturri batzuk bilatzea). Baliabideak efizientziaz esleitzea.

d) Programan zeharkako gaiei —euskara, genero-berdintasuna, kulturartekotasuna, gazteria, irisgarritasuna eta osasunaren ikuspegia— emandako tratamendua:..... 17 puntu, gehienez

Irizpide horren barruan alderdi hauek baloratuko dira:

✓ **Berdintasuna:** ..... **gehienez 5 puntu**

Emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdinkeria kontuan hartzen duten programak baliabideak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, kirolekoak, denbora, aisialdia, partaidetza soziala eta politikoa, enplegua, osasuna...) eskuratu eta kontrolatzeko orduan, eta helburu, ekintza eta/edo neurri zehatzetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta/edo genero-indarkeria desagerrarazteko neurriak jasotzen dituztenak.

✓ **Euskara:** ..... **4 puntu, gehienez ere.**  
Herritar elebidunentzat euskarazko jarduerak dituzten programak.

✓ **Kulturartekotasuna:** ..... **2 puntu, gehienez ere.**

Kultura-aniztasuna eta migrazioekin eta lurraldean aterpetzearekin espezifikoki lotutako alderdiak kontuan hartzen dituzten programak, zeinen helburuak eta ekintzak bideratuta baitaude haiek aintzat hartzea eta ikusgaitasuna ematera, berdintasuna eta diskriminazioaren kontrako borroka sustatzera eta aniztasun-testuinguruetan interakzio positiboa bultzatzera.

✓ **Gazteria:** ..... **gehienez 2 puntu**

12-30 urte bitarteko gazteentzako jarduerak dituzten programak.

✓ **Desgaitasuna:** ..... **gehienez 2 puntu**

Desgaitasun fisikoa, sentsoriala edo intelektuala duten pertsonak mugarik gabe parte hartzea errazteko jarduerak edo zerbitzuak jasotzen dituzten programak.

✓ **Osasuna:** ..... **gehienez 2 puntu**

Portaera eta jokabide osasungarriak garatzen lagunduko duten eta osasun-arloko desberdinkeriei arreta berezia emango dieten programak.

**B) Entitate eskatzailearen balorazioa .....GUZTIRA 15 puntu**

Irizpide horren barruan alderdi hauek baloratuko dira:

Programa garatzeko gaitasuna. Esperientzia egiaztatua. Ikastetxean edo guraso-elkartean berdintasun-batzordea edo berdintasun-arduraduna egotea. Egitura parte-hartzailea eta ekitatiboa. Koordinatzaileetan parte hartzea. Jardueren memoria, sexuaren arabera berezia. Egoitzaren irisgarritasuna. Entitateko pertsonak ingurumenari eta jasangarritasunari buruzko prestakuntza-ikastaroetara bertaratzea.

## **10. artikulua.- Instrukzioa eta balorazioa**

**10.1.** Prozeduraren instrukzio-organoa **MUGIKORTASUN ETA JASANGARRITASUN SAILEKO INGURUMENEO SAILATALEKO JASANGARRITASUNEO ZUZENDARITZARA** adskribatutako pertsonal teknikoak osatuko du.

**10.2.** Balioespen Batzordeak kide anitzeko organo gisa jardungo du, eta kide hauek izango ditu, **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera:**

Presidentea: **Alkateorde eta Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko zinegotzi eskuordea**

Idazkaria: **Euskarri juridikoko teknikaria**

Bokalak: Jasangarritasuneko Zuzendaritza

**Ingurumeneko Sailataleko burua.**

**Ingurumen hezkuntzako teknikaria.**

**10.3** Eskaerak deialdi honetan ezarritako balorazio irizpideen arabera ebaluatu ondoren, Balioespen Batzordeak txosten bat egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

**10.4** Instrukzio-organoak, espedientea eta Balioespen Batzordearen txostena ikusirik, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du.

## **11. artikulua. Berriro formulatzea**

Programa guztien balorazioa egindakoan, entitate bati eman beharreko diru-zenbatekoa ez badator bat eskatutakoarekin, arau hauek bete beharko dira, Bilboko Udalaren deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorraren 10.2 artikuluan ezarritakoaren arabera:

A) Eman beharreko dirulaguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiago bada, entitateak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du Bilboko Udalak, ofizioz, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko da.

B) Eman beharreko dirulaguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko apartatuan (A) zehaztutako berbera izango da;

b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak entitateari adieraziko dio 10 eguneko epean beste era batera planteatu beharko duela bere programa, aurrekontua zenbateko horretara egokituz, edo, bestela, dirulaguntzari uko egin. Erantzun espresurik jaso ezean, ulertuko da entitateak uko egin diola dirulaguntzari.

## **12. artikulua.- Ebazpena**

**12.1.** Gobernu Batzarrak edo hark eskuordetutakoak ebatziko du prozedura.

**12.2.** Eskerak ebazteko eta eskaera egin duten entitateei jakinarazpena egiteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdi honen argitalpen-egunetik aurrera, eta dirulaguntza guztiak jakinaraziko dira, bai emango direnak, bai ukatuko direnak.

Sei hilabeteko epea ebazpenik jakinarazi gabe igarotzeak legitimatzen ditu entitate interesdunak dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertzeko.

**12.3.** Prozedura ebazteko erabakiaren aurka, zeinak administrazio-bidea amaitzen baitu, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Gobernu Batzarraren aurrean hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien epaitegietatik dagokion hartan, hilabete biko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kasu horretan ere.

## **13. artikulua.- Jasotako dirulaguntzen publizitatea**

**13.1.** Orokorrean, onetsitako dirulaguntzaren zenbateko osoaren ordainketa aurreratu ahal izango da justifikazioa aurkeztu baino lehen, finantzaketa hori beharrezkoa baldin bada dirulaguntzaren helburu diren jarduerak aurrera eramateko, eta ez da eskatuko bermea eratzea.

**13.2.** **Onetsitako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan ageri den entitatearen kontu korrontean dirua sartuz.**

**13.3.** Dirulaguntzaren ordainketa ez da egingo baldin eta entitate onuradunak dirulaguntzaren bat justifikatzeko badauka eta dirulaguntza hori justifikatzeko epea dagoeneko amaituta badago. Entitateari aurreko dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatzen bazaio eta ez badu itzultzen, orduan ere ez zaio ordainduko.

## **14. artikulua.- Entitate onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea**

Dirulaguntza jasotzen duen entitate orok publiko egin beharko du udal-finantzaketa hori, eta Bilboko Udalaren logotipoa sartu beharko du sortzen dituen material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan edota idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituen iragarkietan. Argitalpenen kasuan, gainera, edukiaren erantzukizunaren klausula bat ere jaso beharko da, honako hau adieraziko duena:

Proiektu honek Bilboko Udalaren dirulaguntza jaso du, baina, hala ere, entitate onuradunak baino ez du izango haren edukiaren gaineko erantzukizuna.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren % 10 itzuli beharko da.

Era berean, onuradunak hizkuntza ofizial biak —euskara eta gaztelania— erabili beharko ditu diruz lagundutako programaren edo jardueraren publizitatea egiteko prestatzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Halaber, diruz lagundutako jardueraren inguruan egiten diren sustapen-jarduera publikoak ele bietan egingo dira, lehenengo euskara eta ondoren gaztelania erabiliz. Hala ere, kontuan harturik zeintzuk diren hartzaileen eta komunikabidearen ezaugarriak, euskara hutsez egin ahal izango dira komunikazioak.

Gainera, kontuan hartu beharko da aurkeztutako dokumentazioan hizkera eta irudi mota guztien erabilera sexismorik gabekoa izan behar duela, eta horretarako aintzat hartuko da zer dioten Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Bilboko Udalaren Ordenantzaren 15. artikulua.

Entitate onuradunek jasotako dirulaguntzen publizitatea eman beharko dute, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzetan. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitate-betebeharrak betearazteko.

## **15. artikulua.- Azpikontratazioa**

Entitate onuradunek jarduerak azpikontratatu ahal izango dituzte kontuan harturik zer ezartzen duen horretarako dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorraren 13. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29. artikulua, eta orobat kontuan harturik zer dioten Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak.

## **16. artikulua.- Programaren aldaketa**

Programaren funtsezko edozein aldaketa egin aurretik eskatu beharko zaio udal-erregistroan Bilboko Udalari, eta hark berariaz baimendu beharko du.

Funtsezko aldaketarako eskaerak arrazoitu egin behar dira, eta aldaketak aurrekontuei eta kronogramari nola eragingo dien zehaztu behar da. Gobernu Batzarrak dagokion saileko eskuordeari eskuordetzen dio aldaketa horiek baimentzea.

Horretarako, honako hauek hartuko dira funtsezko aldaketatzat:

- Aldaketak helburu orokorretan edo espezifikoetan.
- Onetsitako aurrekontuko partiden zenbatekoetan % 20tik gorako aldaketak (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin izango diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa murriztea ez badakarte.

Aldaketak programaren aurrekontua murriztea badakar, Gobernu Batzarrak onartu beharko du.

Dirulaguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatu ez dituen beste edozein aldaketa onartu ahal da aldaketa hori justifikatzen denean, baldin eta onarpen horrek hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez baditu.

### **17. artikulua.- Uko egitea**

Behin dirulaguntza ematea erabakiz gero, entitate onuradunak dirulaguntzari uko egiteko eskatu ahal izango du Bilboko Udaleko erregistro orokorrean.

Dirulaguntzari uko egiteko eskaera jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da, eta dagokion saileko ordezkariak baiesten duenean izango du eragina. Entitateak, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu.

Dirulaguntza bati uko egiteagatik libre geratzen bada deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik ukatu den beste eskaera bat onartzeko beste kreditu, dirulaguntza ematen duen organoak erabaki ahal izango du, beste deialdirik egin beharrik gabe, dirulaguntza ematea zerrendako ondorengo pertsona edo entitate eskatzaileari edo eskatzaileei, puntuazioaren arabera.

### **18. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin**

Bilboko Udalak ematen dituen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandakoekin. Edozein kasutan ere, dirulaguntzen zenbatekoa edo beste iturri batzuen bidez lortzen diren finantzabideena ezin izango da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan.

Pertsona edo entitate onuradunek udal-ebazpenaren ondoren proiektu bererako dirulaguntzarik edo finantza-laguntzarik jasotzen badute beste administrazio publiko batzuetatik, Bilboko Udalari derrigorrean jakinarazi beharko diote, hilabete baino lehenago dagokion jakinarazpena jasotzen dutenetik aurrera.

## **19. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa**

### **19.1. Justifikatzeko epea.**

Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea 3 hilabetekoa izango da, programa amaitzen denetik aurrera edo dirulaguntza ematea onesten denetik aurrera, baldin eta programa egin ondoren onesten bada dirulaguntza ematea.

### **19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa.**

Dirulaguntza eskatzeko aurkeztutako aurrekontu osoa (% 100) justifikatu beharko da, eta ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, hala agintzen baita Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean.

### **19.3. Justifikazio sistema.**

**19.3.1. Norgehiagoken eta puntutako hainbanaketen kasuan, entitate onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazioko kontua aurkeztuz egingo da justifikazioa, jarraian deskribatzen den bidezala.**

Justifikazioko kontuak honako hauek jasoko ditu:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren eta lortutako emaitzen memoria. Horrek guztiak bat etorri beharko du eskaera egitean aurkeztutako programarekin.

Programa gauzatzeko egindako jardueren eta lortutako emaitzen memoria. Horrek guztiak bat etorri beharko du eskaera egitean aurkeztutako programarekin. Proiektuaren memoria tekniko horrek informazioa jasoko du, eta informazio horretan zehaztuko du zeintzuk diren egindako ekintzak, ateratako emaitzak, lortutako helburuak eta hautemandako arazoak, genero-ikuspegitik azterturik. Aipatuko da, hala badagokio, nolako eragina izan duen proiektuak ekologia- eta gizarte-aldetik.

- b) Programa gauzatzeko gastu eta diru-sarreraren balantzea, emandako ereduaren arabera eginga.

- c) Programa gauzatzeko gastuen fakturen zerrenda, emandako ereduaren arabera eginga.

- d) Programa gauzatzeko aurreikusitako epearen barruan egin diren gastuak egiaztatzeko jatorrizko dokumentazioa, Bilboko Udalak eta Udalaren organismoek eta zuzenbide publikoko entitateek deialdi bidezko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorraren 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako, hauek bereiziko dira:

- Programa gauzatzearekin zuzenean lotutako kostuak, fakturen eta froga-balio bera duten gainerako dokumentuen bidez oso-osorik justifikatu beharko direnak.

Gastuak justifikatzeko aurkeztu diren dokumentuek, edozein kasutan ere, datu hauek jaso beharko dituzte:

- Entitate onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren xedearen deskribapena; xedeak zuzeneko lotura izan beharko du programa gauzatzearekin.

Gastuak justifikatzeko dokumentuak, beste alde batetik, justifikatzen duten programari bakarrik egotzi ahal izango zaizkio.

Salbuespen gisa, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsonen noizbehinka baizik egiten ez dituzten jardueren kasuan, onartu ahal izango da hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren hartu-agiria aurkeztea hartzailearen identifikazio-agiriaren (NANa, AIZa edo pasaporte) kopiarekin batera; zenbatekoa 200 eurotik gorakoa bada, hartzailearen banku-kontuan ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentua ere aurkeztu beharko da.

Pertsonal-gastuak nominen (guztira sortutakoa) eta Gizarte Segurantzako kotizazioen (LZN, langileen zerranda nominala) bidez justifikatu beharko dira.

- Zeharkako kostuei dagokienez, errekerimendu espresurik ezean, ez da eskatuko dokumentu bidezko justifikaziorik. Kostu horiek diruz lagundutako jarduerari egotzi beharko dizkio entitate onuradunak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera zentzuz dagokion zatian, eta, edozein kasutan ere, kostu horiek jarduera benetan egiten den aldiari dagozkion heinean, eta egindako egozpena ezin izango da, inola ere, diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa izan.

Dirulaguntza justifikatzean zeharkako kostuetarako onartuko den ehuneko entitateak dirulaguntza emateko oinarri gisa erabili den aurrekontuan deklaraturako ehuneko berbera izango da, eta benetan justifikatzen diren zuzeneko kostuen gainean bakarrik kalkulatu da.

- e) Baldin eta dirulaguntzaren barruko kontzeptu bati dagokion diru kopuruak gainditzen baditu sektore publikoko kontratuei buruzko legerian kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak, orduan entitate onuradunak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko dizkie eskaintzak, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik.<sup>1</sup>

Aurkeztutako eskaintzen artean egindako hautaketa –dirulaguntzaren justifikazioan, edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu beharko dira eskaintzak–efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da. Hautaketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean.

#### 19.4 Justifikatzeko beste betebeharrak.

Memorian hizkuntza edo irudi ez-sexistak erabili beharko dira. Gainera, baloratutako eta puntuatutako zeharkako politikei (berdintasuna, euskara, gazteria, kulturartekotasuna, osasuna) buruzko datuak eman beharko dira.

#### **19.5. Dirulaguntza ez justifikatzea edo behar beste ez justifikatzea.**

Justifikatzeko betebeharrak betetzen ez bada edo behar beste justifikatzen ez bada, edo 14. artikuluan aipaturako publizitatea edo zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak guztiz edo partez itzuli beharko dira, berandutze-interesarekin batera, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

---

<sup>1</sup> Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, 40.000 eurotik beherako kontratuak (BEZa kanpo) kontratu txikitzat joko dira, baldin eta obra-kontratuak badira; eta orobat 15.000 eurotik beherako kontratuak (BEZa kanpo), baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira.

## **20. artikulua.- Jasotako dirulaguntzen publizitatea**

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak Udalaren webgunean argitaratuko dira.

Era berean, dirulaguntzen berri emango da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.